

OÑATIKO EMAKUMION KONTSEILUA	
ASANBLADA	
Asanblada zk.: 5	Data: 2025-01-16
	Ordua: 18:15-19:45
	Tokia: Udaletxeko bilera gela
Gai ordena	
<ul style="list-style-type: none">• Aurreko aktaren onarpena• 2025 urterako plangintzaren aurkezpena eta ekarpenak jasotzea• Galdera eta eskaerak	

1. Aurreko aktaren onarpena

Ahobatez onartu da

2. 2025 urterako plangintzaren aurkezpena eta ekarpenak jasotzea

Izaro Elorzak 2025 urterako berdintasun arloan aurreikusten diren erronka eta egitasmo nagusien gaineko deskargua egin du. Kontseilukideen ekarpenak jasotzeko tartea ireki da ondoren, eta bertan jaso da Kontseilukideek lehentasunezko lan ildo gisa identifikatzen dituela honakoak:

- Indarkeria matxista jasaten duten emakumeen arreta hobetzera bideratutako programak garatzea
- Emakumeen etxearen eraketa prozesua
- Zaintza estrategian urratsak ematea
- Indarkeria matxistaren gaineko sentsibilizazio egitasmoak garatzea, herritarrei zuzenduta orohar.

Lehenengo hiru lan ildoei dagokienez, udalak aurkeztutako plangintzan jasota dago emango diren urratsak. Sentsibilizazioari dagokionez, ideia garatu eta kontseiluan landuko dela adostu da.

Horrez gain, kontseiluak berak 2025 urterako erronka gisa jasotzen du barrura begira gogoeta egin beharra, emakumion kontseilua eta emakumion etxia egitasmoen arteko harremanaz. Nola begiratzen zaio kontseilutik etxeari?

Horretarako, urtarrilaren 31 eta otsailaren 1ean egingo diren formazio eta tailerretan parte hartzeko gonbita luzatzen zaie kontseilukide guztiei. Larunbaterako proposatzen den ikastaroan bereziki gai hori landuko dela aipatu da.

3. Galdera eta eskaerak

Hurrengo bilera egunak noiz izango diren adostu da.

Ez dagoenez bestelako galdera edo eskaerarik, bilera amaitutzat ematen da 19:45etan.

TRADUCCIÓN

Podeis traducir el contenido de este documento en:

<https://www.euskadi.eus/itzuli/>

O solicitar una cita telefónica, para un resumen oral del contenido del mismo. berdintasuna@onati.eus